



**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Ostirala  
2010-04-16**

VIII. URTEA 1.976. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)

## 'Fernando eta bere garaiko Amezqueta' liburua aurkeztu dute

**AMEZKETA** Otermin egilearen hitzetan Fernando amezketarra herriaren ikur izatera ere iritsi da

**'OMEN'** Bertsolariari 'omen' eransten zaio sarritan baina idazleak beste ikuspuntu batetik aztertu du liburuan 2



Jose Mari Otermin idazlea eta Jesus Iñurrita alkatea. I. GARCIA



Alex Lasa, Marimi Ugalde eta Josune Artolak aurkeztu zuten lehen Kirol Astea. I. TERRADILLOS

## LEHEN KIROL ASTEA ANTOLATU DUTE

**IRURA** Hilaren 25ean amaituko dira kirolari eskainitako egunak; igandean haur, gaztetxo zein helduei zuzenduriko Krosa egingo dute 3

## Txosnen eta diru-laguntzen ordenantza eztabaidagai

**IBARRA** Hainbat eragilek arau berria salatzekeo egun guztiko jaialdia egingo dute bihar 6

**ZURRIOLA IKASTOLA I.K.E.**

**Barandiaran Lizeoa**

Barandiaran Lizeoa  
Manuel de Lardizabal 26  
(Ibaeta auzoan)  
tel 943272587  
zurriola@ikastola.net

**Gorputz-Kirol Ekintzen Sustapena**  
Goi mailako heziketa zikloa

**ATE IREKIAK**  
Apirilak 21 18:00etan



Oterminen eta Iñurrita 'Fernando eta bere garaiko Amezketa' libururen aurkezpenen. 5 eurotan jarri dute salgai. i.e.

## Fernando amezketarrari «omen» hitza kentzen saiatu da Jose Mari Otermin

**Amezketeta** » 'Fernando eta bere garaiko Amezketa' liburua aurkeztu zuten atzo Otermin egileak eta Iñurrita alkateak.

### ERREDAKZIOA

Fernando amezketarra jaio zela 250 urte beteko dira 2014. urtean. Urtebete beranduago, 2015ean, bertsolari handiaren herriak 400 urte beteko ditu.

Jesus Iñurrita alkatearen esanetan, «data horiek ospatzeko ibilbide bat antolatu dugu eta urtero zerbait egin nahi dugu». Atzo udal-letxean aurkeztu zuten Jose Mari Otermin amezketarraren azken liburua, *Fernando eta bere garaiko Amezketa*, bide horretan dauden geltokietako bat.

### Fernando amezketarra, marketing ikurra

Lehenik eta behin, atzo Jose Mari Otermin gustura zegoela aipatu behar da, liburua sortzen «oso

ondo» pasa baitu. «Lan polit» honen oinarrian Fernando amezketarra aurkitzen da, eta Oterminen argi du: «Herri honek inoiz izan duen marketing ikurrik onena da. Edozein lekutara joaten zinenean edo zarenean, nongoa zaren esaten duzunean jendeak Fernando amezketarraren herrikoa zarelako esaten dizu».

Ikur horrek ordea, idazlearen iritziz «omen» hitza soberan dauka: «Fernando etxe honetan bizi omen zen, lanbide hau omen zuen, horrelakoa omen zen...». Oterminen bere liburuan pertsonaia beste ikuspuntu batetik aurkeztu du: «Fernando horrelakoa zen, etxe honetan bizitu zen, lanbide hauek izan zituen...».

**Aralarren babesean, bertsoan** Aralar aldera begiratuta, Fernando doren garaiko Amezketari buruz bi gauza ikusi ditu Oterminen: «Alde batetik, meategia ongi zihon garaia eta gainbehera hasi zeneko, 1790. urtetik aurrerakoa. Bestetik, artzaintzaren indartzea».

Beste askorenak bezala, bertsolari amezketarraren lanbide batzuk ere Aralarri loturik egon ziren: «Fernando txiroa zen, baina ez arlotea. Ez zuen bere jabetzako etxerik inoiz eduki, baino ez zen arlotea; hiru bider ardiak erosi zituelako eta hil zenean gutxienez 110 bat ardi zituelako».

Fernando amezketarra zerbait baldin bazen, Oterminentzat, bertsolaria zen: «1801ean ospatu zen bertso norgehiagoka batean, Villabonan, epaimahaikide bezala egon zen. Hurrengo urtean, Tolosako Inauterietan, berak hartu zuen parte bertso desafio batean. Bere bertsoak aldiz, herri xeheak gogoratu dituelako daude oraindik hor. Jendeak oso bertsolari ontzat zeukala esan nahi du guzti horrek».

Oso argia, erantzun azkarrekoa, Lazkao Txikiren tankerakoa... eta garaiko edozein istorioren protagonista izateko pertsonaia egokia. Oterminen ustez, arrazoi horregatik «erantsi» zaizkio Fernando horrenbeste kondaira «itxuragabe».

## Pello Olano lizartzarraren kideak aurrez-aurrekorik gabe

**Politika** » Jaengo espetxean aurkitzen da Olano. Etxeratek azaldu duenez katxeo saiakerak egon ziren asteburuan.

### ERREDAKZIOA

Etxeratek jakinarazi duenez, iragan asteburuan, Jaengo espetxean aurkitzen diren lau euskal preso aurrez-aurreko bisitarik gabe gelditu ziren. Pello Olano lizartzarra ere bertan aurkitzen da. Kasu honetan ordea, bisita arazorik gabe egin ahal zuten bertara gerturatu zirenek.

### Lizartzatik 791 kilometrora

Jaen Lizartzatik 791 kilometrora aurkitzen da. Joan etorria egiten duten senide eta lagunek beraz, 1.582 kilometro egin behar izaten dituzte.

Iragan asteburuan Olanoren lau kidek bisitak zituzten, lizartzarrak bezala. Joseba Arregi, Ibai Aginaga eta Aitor Garciaren senide eta lagunak katxeatzen saiatu ziren espetxe langileak, Etxeraten esanetan. Hauek uko egitean aurrez-aurrekorik gabe gelditu ziren.

Iturri beraren esanetan, Ana Lizartzalderen kasuan, familiarekin zuten bisita. Tartean haurrak aurkitzen ziren, euren amarekin. Umeak adin txikikoak izaki ez zituzten katxeatu, baina hauen amarekin saiatu ziren. Honek uko egitean ordea, bisita arazorik gabe egin ahal zuten bertara gerturatu zirenek.

Etxeraten esanetan, gertaera hauen ondorioz Jaengo espetxean bis bakarria egin ahal izan zuten Euskal Herriatik joandakoek iragan asteburuan. Izan ere, Pello Olanoren senide eta lagunek ez zuten katxeo saiakerarik pairatu.

## Laburrak

### Asvinenean Poltsikoko Antzerki Lehiaketa, gaur

**ADUNA** » Gaur jokatu da Asvinenean Poltsikoko Antzerki Lehiaketaren lehen kanporaketa, 22:30ean. Hamabi taldek hartuko dute parte bertan. Horretaz gain, Enekorak emanaldia eskainiko du.

### Leidorren antzerki emanaldia 20:30ean

**TOLOSA** » Txalo Produzioak *Arrastoa* lana aurkeztuko du gaur Leidor aretoan. Antzerki emanaldia 20:30ean hasiko da. Sarrerak 10 euro balio dute eta Leidorreko leihatilan aurkitzen dira.

### Bonberenean Ze Esatek! eta Pikunken kontzertua

**TOLOSA** » Bonberenean gaur eta bihar lau kontzertu antolatu dituzte. Gaur, hilak 16, Ze Esatek! eta Pikunk taldeek eskainiko dute emanaldia 22:30ean. Bihar, hilak 17, ordu berean, Potemkin eta Sharon Stoner taldeak ariko dira.

### Arabara mendi irteera hilaren 18an, etzi

**IBARRA** » Haitzetan Raju eta Bai Euskal Herriarik mendi irteera antolatu dute hilaren 18an, etzi. 08:30ean Ibarra gelditu dira, Arabara joateko asmoz.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan **DOAN** agertuko da

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak



**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK  
SPUTNIK DORREEN ONDOAN  
ZURE BETIKO EHORZTETXEA  
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40  
ZERBITZU IRAUNKORRA  
902 402 900

# «Parte-hartzailea eta adin guztiei zuzendua» izango da lehen Kirol Astea

**Irura** » Gaur arratsaldean hasiko da 18:00etatik aurrera jokatuko dituzten xare partidekin; hilaren 25era arte iraungo du.

## INIGO TERRADILLOS

«Kirolari garrantzi handiago eman behar zitzaioala ikusita» aurreneko Kirol Astea antolatu du Irurako Udalak. Bihar hasi eta hilaren 25era arte luzatuko da, eta tartean askotariko kirolak egin eta ikusteko aukera izango da, «helburu nagusia parte hartzea delarik». Iruran xareak duen garrantzia kontuan izanik, egitarauan ere leku berezia izango du kirol honek, eta nabarmentzekoak dira, baita ere, Irurako I. Krosa, GPS ikastaroa edota esku-pilota partidak.

Maiatzean egin ohi dute Irurako Kultur Astea, eta bertan orain arte denetarikoa ekintzak antolatu izan dituzte, kirol jarduerak ere bai. Hala, «kirolari merezi duen tartea eman asmoz» aurreneko lehen aldiz kirol ekintzez bateriko astea egingo dute. Aurrerantz, beraz, Udalaren asmoa apirilaren Kirol Astea egitea izango da, eta maiatzean, berriz, Kultur Astea.

## Hasiera xarearekin

Kirol Asteari Irurako kirol izarrak emango dio gaur hasiera, xareak, hain zuzen. 18:00etan hasiko da festa gaztetxoaren arteko partidekin. Ondoren, elite mailako txanda izango da, eta hor herriko Lopetegui pilotariak hartuko du parte. Lehen egunarekin amaitzeko Emakumea Pilotari Txapelketako partida izango da.

Bihar arratsaldean nahi duen orok cycling-ean parte ahaliko du, eta horretaz gain, xabakoak izango



Irurako lehen Krosaren parte-hartzaileek egin beharko duten ibilbidea. HITZA



Marimi Ugalde Irurako alkatea, Alex Lasa eta Josune Artola teknikariek. I.T.

dira herri-jokuekin eta futbito partida ere izango da.

## Lehendabizikoz, krosa

Lehen Kirol Astearekin batera, Irurako I. Krosa ere egingo dute etzi. 2.500 metro ditu ibilbideak. Benjamin eta alebinek herena egingo dute, infantilek erdia, kade-teek itzulibat eta helduek bi. Parte-hartzea doan izango da, eta izena emateko [kultura@irura.net](mailto:kultura@irura.net) helbi-

dera datuak bidali beharko dira, edo bestela egunean bertan hasi baino ordubete lehenago egin ahaliko da. Krosa dela eta, trafikiko mozketak egingo dituzte herriko kale nagusian 10:00etatik 12:30era.

## GPS ikastaroa

Nabarmentzeko beste ekintza GPS ikastaroa izango da. Nahi duen orok parte hartu ahaliko du, eta ez da ordaindu beharrik izan-

go. Hilaren 20an, 21ean eta 22an mendian orientatzen ikasteko teoria irakatsiko du Karlos Garciak, bi orduko saioetan, eta hilaren 25ean mendira irtengo dira ikasitako praktikan jartzera. Parte hartu nahi duenak datorren astelehena baino lehen 665 70 70 71 zenbakira hots egin beharko du.

Ikastaro gehiago ere izango dira Kirol Astean, patinajearena, hain zuzen. «Parte-hartzea ahalik eta zabalena izatea denez helburua», gazteei zuzendurikoa nahiz helduei zuzenduriko ikastaroa egingo dute asteazkenean. Halaber, urtero hutsik egiten ez duen jubila-tuen ibilaldi neurtua ere sartu dute egitarauaren baitan. Hau datorren ostegunean izango da.

Bestalde, Udalak datorren ostiralean izango diren esku-pilota partidak ere azpimarratu nahi izan ditu, «egungo Gipuzkoako afizionatu mailako pilotari entzutetsuen ariko baitira».

Datorren igandean amaituko da lehen aldiz egiten duten ekimen hau, plazako ikastolan jokatuko diren xake partidekin.

## Laburrak

### Sagardotegian bazkari egingo dute Artubikoek

**BEDAIO** » Bedaioko Artubi elkarteak antolatuta, Astigarragako Bereziartua sagardotegian bazkaria izango dute bihar. Autobusa Bedaiotik aterako da 12:30ean, eta Alegian 12:45ean egingo du geldialdia.

### Hilaren 20ra atzeratu dute bizkarrari buruzko hitzaldia

**TOLOSA** » Amaroako Beti Gazteak elkartearen egoitzan bizkarrak eta artikulazioak zaintzearen inguruko hitzaldia aurreikusia zegoen pasadun astearteko, baina, «ustegabeko arazoak tarteko» atzeratu egin beharra izan dute, eta Joseba Muñoz medikua datorren asteartean hilaren 20an izango da elkartearen egoitzan hitzaldia ematen. 18:30ean hasiko da.

### Gure Txokoa elkartearen eguna izango da bihar

**TOLOSA** » Gure Txokoa elkarteak Elkartearen Eguna ospatuko du bihar. Goizean hildako bazkideen aldeko meza izango dute Belateko Jesusen zerbitzarien elizan, eta ondoren lancha izango da elkartearen. Arratsaldean jarraituko du festak; 18:30ean askaria emango dute, eta ondoren poteoa egingo dute herriko kaleetan zehar Bonberenea txarangak alaiturik. 20:30ean elkartera joango dira afaltzera.

### Hiru pelikula emango dituzte asteburuan

**TOLOSA** » Hiru film izango dira ikusgai asteburuan Leidor aretoan. Bihar *Millennium 3* emango dute, 19:30ean eta 22:30ean. Etzi, berriz, *Arthur y la venganza de Malgazar* izango da ikusgai 17:00etan eta *Corazon Rebelde* 19:30ean eta 22:00etan. Astelehenean *Millennium 3* emango dute, 20:30ean.

## » EGITARAUA

### Apirilak 16, gaur

**18:00.** Xare eta pala partidak trinketeen:

- Lehendabizi gaztetxoaren arteko partidak jokatuko dituzte.
- Ondoren, elite mailako jokalarionentsuenen arteko partida izango da, Lopetegui Irurarra ariko delarik: Lopetegui eta Funosas Driollet eta Borteiriouren aurka.
- Azkenik, Trinketeko IV. Emakumea Pilotari Txapelketako 1. mailako partida izango da: Perez eta Arozena Aburuza eta fernandezen aurka.

### Apirilak 17, bihar

- **17:00-19:00.** Cycling maratoia pilotalekuan.
- **17:30.** Herri-joku eta jolasak haur eta gaztetxoentzat xiba taldearekin.

■ **Ondoren.** Futbito partida pilotalekuan, Gazteleku eta Gazte Asanbladaren artean.

### Apirilak 18, etzi

- **10:30.** Irurako I. Krosa. Benjamin, alebin eta infantil mailako en artea.
- **11:30.** Irurako I. Krosa. Kadeteen eta helduen artea.

### Apirilak 20, asteartea

■ **19:00-21:00.** GPSrekin mendian kokatzen ikasteko ikastaroa, gaztelekuan.

### Apirilak 21, asteazkena

- **17:30-19:00.** Patinaje ikastaroa haurrentzat pilotalekuan.
- **19:00-20:30.** Patinaje ikastaroa helduentzat pilotalekuan.
- **19:00-21:00.** GPSrekin men-

dian kokatzen ikasteko ikastaroa, gaztelekuan.

### Apirilak 22, osteguna

- **16:30.** Jubilatuen ibilaldi neurtua.
- **19:00-21:00.** GPSrekin mendian kokatzen ikasteko ikastaroa, gaztelekuan.

### Apirilak 23, ostirala

■ **22:00.** Esku-pilota partidak pilotalekuan. Gipuzkoako afizionatu mailako pilotari entzutetsuenen artean.

### Apirilak 25, igandea

- **09:00-13:00.** GPS ikastaroaren arlo praktikoa Irura inguruko mendietan.
- **10:30.** Xake partidak plazako ikastolan.

Beti Alai

jatetxea

Garaian garaiko janariak  
Arraikietan berezia

© 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Erremerterri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

# Eskualdeko hiru herri hasiko dira gaur Herriarteko Txapelketan

**Pilota** » Villabonak Albizturren aurka jokatu du, eskualdeko derbyan, eta Tolosa Arrasatera joango da; bihar ariko dira eskualdeko beste hiru herriak.

**IMANOL GARCIA**

Herriarteko Txapelketari gaur emango zaio hasiera eta eskualde-tik parte hartzen duten sei herrietatik hiru ariko dira. Birek, Villabonak eta Albizturrek, elkarren aurka jokatuko dute, eta Tolosak Arrasateren aurka izango du norgehiagoka etxetik kanpo. Gaur joaneko partidak izango dira eta datorren astean jokatuko dituzte itzulikoak.

Villabonak eta Albizturrek Villabonako Bearzana pilotalekuan jokatuko dute, 18:00etan. Tolosak Arrasateko frontoian jokatu du, 19:15ean. Herriartekoan parte hartzen duten beste hiru herriek, Alegiak, Amezketak eta Bidegoianek, bihar jokatuko dituzte euren partidak.

**Villabona.** Kadete mailan Mikel Otaño eta Aitor Ormazabal Arzua ariko dira, jubenetan Asier Arrue eta Beñat Karrera, eta nagusietan Arkaitz Arretxe eta Iñaki Lizaso. Ez dute nahi bezala osatu taldea billabonatarrek, jokatu duten denek berez aurrelari moduan aritzen baitira. Gainera, Lizasok zaintziratua izan zuen aste honetan entrenamendu batean, eta ikusi beharko da zein egoeratan izango den gaurko partida jokatzeko.

Iñaki Lizaso bera da taldeko arduraduna eta bere ustetan «zaila» dute kanporaketa gainditzea. «Jubenil mailan normalean guretzat izango da puntua. Kadeteetan haien pilotariak oso onak dira, batez ere Labaka, memento honetan kadeteetan dagoen pilotari onenetakoa delako». Lizasok gainera-



Villabonako taldea: goian, ezkerretik eskuinera, Otaño, Iñaki Otaegi (ordezkoa), Lizaso eta Ormazabal. Behean, ezkerretik eskuinera, Arrue, Kepa Nazabal (ordezkoa) eta Karrera. Argazkian Arretxe falta da. I. GARCIA



Albizturko taldea: goian eta ezkerretik eskuinera, Arandia, Labaka, Iñaki Orbegozo eta Telletxea. Behean, ezkerretik eskuinera, Balerdi, Urkizu eta Jaime Orbegozo. E. EZEIZA

tzen duenez, Villabonako kadeteak «oso onak dira, baina ez dakigu Labakaren aurka nolako maila eman ahal izango duten. Beste kadete batzuen aurka seguruena ondo ibiliko ginatke, baina kasualitatez Albizturren aurka tokatu zaigu jokatzeko». Nagusien mailan «zaila dugu ere», dio Lizasok. «Ni atzean aritzeak zaildu egiten du gehiago oraindik, aurrelaria bai-

naiz. Aurkaria, Telletxea, afiziona-tu mailan nahiko aurrean dabil».

Taldea osatzeko nagusietan izan dute arazo, beste urteetan bezala. «Atera izan direnak nagusietan, nitaz aparte, faborea eginez parte hartu dute», dio Lizasok. Iaz ez zen atera taldea. Orain hiru eta bi urte atera ziren Villabonatik, baina zortzi urtetan atera gabe egon ondoren. Lehenengo aldia

izango da Herriarteko Bearzana frontoian jokatzeko dena. «Espero dugu jendea etortzea animatzerara», azaldu du Lizasok.

**Albiztur.** Kadeteetan Iñaki Balerdi eta Eneko Labaka ariko dira, jubenetan Xabier Urkizu eta Iñaki Orbegozo, eta nagusietan Jaime Orbegozo eta Xabier Telletxea.

Kanporaketa «zaila» ikusten du

ere Gorka Arandia taldeko arduradunak, baina aukerak ere ikusten ditu: «Jokatu egin beharko da. Ahal dugun puntu guztiak lortzera joango gara. Agian hiruk ez dira posible izango baina ea bi lortzen ditugun».

Arandiak azaltzen duenez, jubenetan ikusten du puntua lortzeko partidarik zailena. Halere, berriro errepikatzen du jokatu egin behar dela: «Lehenengo urtean esperantzarekin joan ginene eta galdu egin genuen Arrasateren aurka lehenengo kanporaketan».

Bigarren urtea da taldea osatzen dutela Albizturren. «Datorren urtean ere ea posible dugun ateratzea. Zaila izaten da horrelako herri txikietan taldea osatzea. Pixka baterako atzetik ez dator inor eta horregatik zaila izango da datorren urteetik aurrera taldea egitea», dio Arandiak. Itzuliko partida etxean jokatzeko «herriarentzat saltsa gehiago, politagoa» izan daitekeela dio taldeko arduradunak.

**Tolosa.** Kadeteetan Andoni Mujika eta Aitor Olazabal ariko dira, jubenetan Josu Mujika eta Aitor Gurrutxaga, eta nagusietan Mattin de la Sotilla eta Iñaki Errazkin ariko dira.

Mikel Belloso da arduraduna eta taldearen aurtengo parte-hartzea «eskarmentua hartzeko» dela dio: «Tolosa zortzi urtez egon da Herriartekoan parte hartu gabe eta talde xume bat dauka». Belloso ez ditu asko ezagutzen Arrasateko pilotariak: «Esan digutenez aukera txiki bat daukagu. Nagusietan bikote indartsua dute. Bai kadeteetan eta bai jubenetan oker-rragoa daukate. Aurreneko bi partidetan izango da koska».

Belloso bera kadete zela jokatu zuen Tolosak azkeneko aldia Herriartekoan. «Gazteentzako ez zegoen pilota eskolarik eta atzetik jendea etortzea zaila zegoen», dio. «Orain dela lau urte pilota eskola sortu genuen eta hortik pixka bat harrobia etorri da eta horrek ahalbidez du Herriartekoan parte hartzea».

Eskolaren proiektua martxan jarri zutenean, helburu nagusia zen oinarria sortzea eta Herriartekoan parte hartzea. «Ilusio handiz gaude, guretzat garrantzitsua delako berriz txapelketa honetan parte hartzea», gaineratu du Belloso.

argazki lehiaketa

**bidali opor hauetako argazkiak!**

**NORA BIDALI?**

tolosaldean@tolosaldekohitza.info helbide elektronikora edo HITZAren Tolosako edo Leitzako egoitzetara **Apirilaren 6tik 28ra**

**1. Saria**

Busturiako **landetxean** bi gau pasatzeko

**2. Saria**

Bermeoko **Ar landetxean** bi pertsona bi gau pasatzeko

**3. Saria**

Larte gazteagorako **bi gazta** edateko

**HITZA** aste santuko argazki lehiaketa

# Foru Aldundiak 1,1 milioi euro inbertituko ditu N-1 errepidean

**Azpiegiturak** » Irura, Villabona eta Andoainen, Irungo norabidean, egingo dituzte birgaitze lanak 5 kilometrotan zehar.

**ERREDAKZIOA**

Gipuzkoako Foru Aldundiak 1,1 milioi euroko inbertsioa egingo du Irura, Villabona eta Andoainen parean N-1 errepideko zoruaren egitura birgaitzeko. Irungo noranzkoan egingo dituzte aipatu lanak. Diputatuen Kontseiluak erabaki du enkantera ateratzea N-1 errepideko zoruaren egitura birgaitzeko proiektua. Lanak egiteko 2 hilabeteko epea izango dute.

Proiektuaren bitartez N-1 errepidearen zorua berrituko dute 5 kilometroko luzeran, trafiko kontzentrazio handieneko zati batean. Egitura birgaitzeko lanen bidez oraingo zoruak duen egitura ahalmena handitu nahi dute eta segurtasunari eta erosotasunari buruzko ezaugarri funtzionalak hobetu. Adierazitako bidearen zati horie-

tan zorua birgaitzen hasi aurretik, hala ere, eskuineko lerro osoan oraingo zoladura konponduko dute. Horretarako, fresaketa sakona egingo dute (gaieko 8-10 zm), eta ondoren beroan egindako betun nahasketako geruza zabalduko dute. Ezkerreko lerroan ere egingo dira lan horiek, behar den zatietan.

Bestalde, 441,715 puntu kilometrikoan dagoen egitura konpondutako, hango dilatazio juntuak kenduko dute, eta, juntuak zigilatzeke, poliesterezko erretxinarekin egindako morteroarekin berringotuko dute, eta baita 439,350 eta 444,960 puntu kilometrikoetan dauden egituretakoak ere.

Era berean, Gipuzkoako Foru Aldundiak Baliarraingo Udalar-

erango dio sare lokaleko (grisa) GI-3851 (Baliarrain) errepidearen hiri zeharbidearen gaineko titulartatea.

Titularitate lagapena Baliarraingo Udalak gutxi egindako eskaera baten ondorioz gauzatu dute eta GI-3851 errepidearen 2,355 eta 2,440 puntu kilometrikoen arteko 85 metroko tartebati eragingo dio.

Tarte horrek Baliarraingo herri-gunera iristen den GI-3851 errepidearen zeharbidearen azken zatia hartzen du, Muñogain kalearen bidegurutzearan eta plazaren artekoa. Aipatutako 85 metroko zatia batez beste 4,20 metro zabalera du, egoera onean dago, hiri izaerakoa da eta ez du udalerriaz gaindiko interesik.

**» ZENBAIT DATU**

- **Errepidea.** N-1.
- **Zatiak.** 438,610-442,300 K.P. eta 444,020-445,340 K.P.
- **Udalerriak.** Irura, Villabona eta Andoain.
- **Proiektua.** N-1 errepideko zoruaren egitura birgaitzea.

- **Birgaitu beharreko bide zatien luzera.** 5 kilometro.
- **Aurrekontua.** 1,1 milioi euro.
- **Burutzeko epea.** 2 hilabete.
- **Egoera.** Enkantera ateratu dute.

# Birgaitze lanak Belauntzan eta Hernialden

**Azpiegiturak** » Hernialden pilotalekua eta Belauntzan Martintxo beheko lokala egokituko dituzte Landagipuzkoa 32ri esker.

**ERREDAKZIOA**

Gipuzkoako Foru Aldundiak Hernialdeko eta Belauntzako Landagipuzkoa 32 programako balioanitzeko azpiegiturak onartu berri ditu. Bi proiektu hauekin 14 dira jada Landagipuzkoa 32 programaren baitan urtebetean abiarazi diren erabilera askotako azpiegiturak. 4.008.000 euro erabili ditu Foru Aldundiak, jada, azpiegitura horiek finantzatzeko.

Hernialderen kasuan pilotalekua berrituko dute. Berritzearen kostua 138.517,81 euro da eta horietatik 120.000 euro jarriko ditu Foru Aldundiak.

Hernialdeko pilotalekua plazaren alde batean dago eta beste aldeetan eliza eta udaletxea ditu. Frontoiak oso toki garrantzitsua dira herri txikietan, herritarren bilgune direlako. Hernialdeko orain egoera txarrean dagoenez, berritze lanak egin nahi dizkiote, zehazki, kanpo estaldura birgaituko dute eta barneko hormak indartu eta pintatuko dituzte, hezetasun arazorik ez egoteko.

Bestalde, aipatu behar da aurretik onartutako Santa Kruz Apaiza plazaren birmoldaketa lanen biga-

rren fasea egiten ari direla une honetan.

Belauntzan, berriz, Martintxo beheko lokala egokitzea onartu dute eta 160.000 euro jarriko ditu Foru Aldundiak horretarako. Behe solairuko lokal horretan gizarte eta kultura jardueretako aretoak egokituko dituzte, Belauntzako Udalak eraikin hori gizarte eta kultur zentroa izatea nahi baitu, herritarren arlo horretako beharrei erantzuteko.

Aipatu bezala Gipuzkoako Foru Aldundiak 4.008.000 euro inbertitu ditu Landagipuzkoa 32 programaren baitan eskualdeko Abaltzisketa, Baliarrain, Gaztelu, Aduna, Albiztur, Amezketa, Hernialde (bi proiektu), Larraul eta Belauntzan.



## Idiazabalgo Txapelketan garaile

**ALEGIA** » Aurreko igandean XI. Infantil Mailako Futbol 8 Txapelketa jokatu zen Ildiazabalen eta berriro lortu zuten garaipena Intxurrekoek. Alebin eta infantil mailako jokalariek parte hartzen dute Txapelketan. Intxurrek 7-1 irabazi zion Ildiazabali finalerdian, eta finalean lIntxari 3-1. Garaipen horrekin, Txapelketaren hamaika ediziotan lau aldiz izan da txapeladuna Intxurre eta bitan azpitxapeladuna. Aipatzekoa da Aratz Irazustabarrenak taldeko hamar goletatik zazpi sartu zituela. HITZA



## Ipuin kontalarien istorioak

**KULTURA** » Ipuin kontalarien bi emanaldi izan ziren atzo arratsaldean, bata Albizturren eta Tolosan bestea. Albizturren Idoia Sanchez tolosarraren istorioak entzun ahal izan zituzten Haur Liburutegiko ipuin txokoa eta Tolosan berriz, Miriam Mendoza izan zen Liburutegian. Bietan gozatu ederra hartu zuten haurrek. HITZA-R. CALVO

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza

bertako egunkaria

egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldekohitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:  
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa  
Herriko plaza 1 • 31180 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P,K:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteko, betetik, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak TOLOSALDEKO HITZA ERREDAKZIOARI 5-M-REN FITXOTEGI AUTOMATIZATU BATERA PASATUKO DIRELA, ERREPESKATUTAN ERABILTZEAREN BERRI EMATEKO. ZURE ESKU DAGU IKUSTEKO, ZUZENTZEKO, EZERTZATEKO ETA KONTRA EGITEKO ESKUBIDEAK ERABILTEKO. Hala ere, nahi izanez gero, idatzi behar duzue honetara: TOLOSALDEKO HITZA ERREDAKZIOARI 5-M-REN FITXOTEGI AUTOMATIZATU BATERA PASATUKO DURELA. HITZA ERREDAKZIOARI 5-M-REN FITXOTEGI AUTOMATIZATU BATERA PASATUKO DURELA. HITZA ERREDAKZIOARI 5-M-REN FITXOTEGI AUTOMATIZATU BATERA PASATUKO DURELA.

Txosna eta diru-laguntza eskaeren inguruko ordenantza eztabaidagai da egun hauetan; honen haritik, bere desadostasuna adierazteko asmoz herriko hainbat talde eta elkartek bat egin dute eta egun osoko jaialdi bat antolatu biharko; Udalak bere aldetik dio, bi arlo hauek erregulatzeko asmoz eta hobeto antolatzeko onartu duela legedi berria.

## «Taldea hauetako kideok herriarentzako egiten dugu lan; ulertezina da guri oztupoak jartzea»

**OLATZ EIZAGIRRE ETA AITOR GARMENDIA** | Biharko ekitaldien antolatzaileak

**Ibarra** » Udalaren kudeaketa sistemarekiko ezadostasuna adierazteko egun guztiko jaialdia antolatu dute biharko.

### ESTI EZEIZA

«Azken hiru urteetan ezadostasun asko» izan dituzte Udalarekin, eta orain, herriko 24 eragilek bat egin dute aldarrikapen jaialdi bat antolatzeko. Arduradunen artean daude Olatz Eizagirre Txiribitu aisialdi taldekoa eta Aitor Garmendia, Bartola Jai Herrikoien Aldeko Batzordeko kidea.

**Zergatik erabaki duzue biharko jaialdia antolatzeko?**

**Olatz Eizagirre:** Duela hilabete gutxi Udalak bi ordenantza berri aurkeztu zituen. Herriko hainbat talde ez gunden ados hauekin, eta alegazioak egitea erabaki genuen. Baina, hauek ez ziren onartuak izan Osoko Bilkuran. Hori dela eta,



E. EZEIZA

Udalak aurrera eraman duen prozedura ez zaigu egokia iruditzen, eta ezadostasunak adierazteko, aldarrikapen jaialdi bat antolatzeko erabaki dugu.

**Salaketa bat ere badago jarrita.**

**Aitor Garmendia:** Behin, herrian eman beharreko prozedura guztia amaitu ostean, Administrazioarekiko auzi-prozesua hastea erabaki dugu. Epaitegietara jauzi egitea adostu dugu, herritarrengan, az-

ken urteetan ezinezona handitzen joan baita. Ezinezon hau Udalak duen kudeaketa sistema ezegokiaren ondorioz sortu da. Hiru urtetako ibilbidean, erabakiak hartzerako garaian, joera oso arbitrarioa izan dute, eta ez dute herritarren iritzia kontutan hartu. Esaterako, horren adibide dira, haur-eskola-keren kasua, eta OTA sistemarena. Forma ezegoki horiek behin eta berriro errepikatu dira, baina

oraingo honetan, herriko talde gehienengan du eragina, eta denok batera, elkarrekin, mobilizatzea erabaki dugu.

**Txosnen ordenantza eta diru-laguntza dira sua piztu dutenak.**

**A. G.:** Bi ordenantza hauek oso zorrotzak dira, ziurrenik eskualdeko beste inongo herritan ez da eman- go horrelakorik. Hori dela eta, talde bakoitzak bere interesak izan arren, bat egitea erabaki dugu eta jaialdi anitz bat antolatzeko. Talde hauetako kideok herriarentzako lan egiten dugu, boluntario moduan, eta ulertezina iruditzen zaigu guri oztupoak jartzea.

**Salaketa jarri aurretik, elkarriketarik egon al da Udalarekin?**

**O. E.:** Gu prozedura legala ari gara jarraitzen. Hala, ordenantzak aurkeztu zirenean, alegazioak jarri genituen, eskatuz, hauek eztabaidatze eta gure iritzia emateko.

**A. G.:** Alegazioan, azken batean hori eskatzen genuen, elkartzea, eta eztabaidatzeko aukera izatea.

Uste genuen onartuko zutela, eta bilerara gutxienez deituko zigutela, baina ez da horrela izan.

**Zergatik uste duzue aldatu dituztela ordenantzak?**

**A. G.:** Ez dakigu ziur, eta bakoitzak bere iritzia du. Baina nire ustetan, Udal ordezkariak agintera modu berezi batean iritsi ziren. Honen ondotik, erabakiak hartzerako garaian, neurri handi batean, ez dituzte herritarrek aintzat hartu eta giroa pixkanaka gaiztotzen joan da. Testuinguru horretan, gero eta mamu gehiago ikusten dituzte inguruan. Txosnen kasuan esaterako, jarritako neurriak oso zehatzak dira, eta talde baten aurka doaz ia modu zuzenean.

**O. E.:** Udalarri eskatzen diogun gauza bakarra da, herriarentzako erabakiak hartzerako garaian, herritarren iritzia kontutan hartzeko eta gurekin hitz egiteko, gauzak adosteko.

**Hiru urte hauetan nolako izan da Udalaren eta herriko eragileen arteko harremana?**

**O. E.:** Aldarrikapen asko egin dira, eta jendea Udalaren aurka hainbatetan agertu da, baina ez dute jaramonik egin.

**A. G.:** Harremana erabat bertikala da. Beraiek erabakitzen dute eta guk jasaten dugu. Ez dugu beste ezertarako aukerarik.

## «Aurka dauden horiek zer kentzen zaien esan beharko dute, eta kexatzeko arrazoiak eman»

**TXELO ROMEO** | Ibarra alkatea

**Ibarra** » Txosnak eta diru-laguntzak erregulatzeko asmoz ordenantza berri bat onartu du Udalak.

### ESTI EZEIZA

Txosna eta diru-laguntzen ordenantza berriak hautsak harrotu ditu herrian. 2009ko azken Osoko Bilkuran eman zioten onarpenera araudiari. Azken erabakien inguruan mintzatu da Txelo Romeo alkatea.

**Zergatik erabaki du Udalak txosna eta diru-laguntzen inguruko ordenantzak aldatzea?**

Txosnen ordenantzan egin den aldaketa nagusia da, gehienez bost jarri ahal izango direla, eta ilaran. Urteetik urtera gehiago baitziren eta hau desordena zen. Bestetik, jaietan, espazio publikoa erabiltzeagatik ordaindu egin beharko dute. Neurrian ere mugak jarri ditugu, Ibarra plaza denek erabili ahal izateko. Hau azken batean, ez baita oso handia. Gainerakoan ez



E. EZEIZA

da aldaketa handiegirik egon. Helburua txukuntzea zen.

**Ibarra taldeek bakarrik jarri ahal izango dituzte txosnak herrendik aurrera.**

Bai, ahal bada behintzat, bai. Modu horretan erregulatu daiteke ondoren. Herriko taldeei abantailak emateko asmoz hartu dugu neurri hau.

**Diru-laguntzen eskaerak egiteko ere, aldaketak proposatu dituzue ordenantzan.**

Lehen ere egiten ziren gauzak eskatzen ditugu orain. Lege bat baze- goen orain arte ere, baina ordenan-

tza honekin, gure helburua da, arautzea eta pixka bat gehiago zehaztea.

**Ordenantza onartu aurretik proposamenak eztabaidatu al dituzue herriko eragileekin?**

Zenbait kasutan bai. Telefonoz deitu zaie, eta proposamenaren berri eman. Baina azken batean, aldaketak ez dira horrenbestekoak. Esan diegu laguntzak izoztu egin direla, eta ez murriztu, zenbaitek esan duten bezala. Talde ofizialek lehen ere egiten zuten orain eskatzen den hori. Txosnen kasuan ordea, iazko lotsagabekeriak ez erre-

pikatze asmoz egin dira aldekak. Nahi diren txosna guztiak ezin dira jarri.

**Ordenantzei alegazioak aurkeztu zizkieten herriko taldeek.**

Alegazioetako testua bakarra zen, baina, testu bera, hainbat taldek aurkeztu zuten. Dena den, hauek ez ziren onartu. Azken batean, diru-laguntzen kasuan, lehenagotik egiten zen gauza bat zen. Ordenantza orokor bat zegoen, eta orain berriz, berezitu bat aurkeztu

da. Txosnen kasuan berriz, gure ustez espazio publikoaren erabilera erregulatu beharra zegoen.

**Hala ere, herriko talde eta eragile- en gehiengoak agertu du bere desadostasuna.**

Egia esan, ez dakit zuztergatik kexatzen diren. Lehen esan bezala, aldaketak ez baitira horrenbestekoak. Edukirik gabeko kritika bat da hau. Aurka dauden horiek zer kentzen zaien esan beharko dute, eta arrazoiak eman. Txosnen kasuan esaterako, logikoa da, espazio publikoaren erabilera gatik ordaindu behar izatea.

**Herriko hainbat eragilek jarritako salaketa hor dago.**

Bai, hau abokatuen esku dago. Baina dena legeraren barruan dago, eta salaketa jarri dutenek jakin behar lukete hau.

Mark: Ibañak33@gmail.com Euskal Herriko produktuak, ekoizlearengandik zure eskura

Alemarian bizi naiz azken bost urte hauetan, eta Euskal Herriko Plazan eskatzen ditut ardoa, garagaradua eta barazki kontserbak. Etxean bezala, ez baita inon jaten.

<p>19,45 € Erref.: 120002 Larre-gain sagardo 12 botila</p>	<p>33,36 € Erref.: 260001 Pagoa, garagardo horia 24 botila</p>
--	--

Beste produktu askoren artean, hauek topatuko dituzu Euskal Herriko Plazan.

www.euskalherriko plaza.com  
plaza@euskalherriko plaza.com

erosi gurean

# Beterriko Liburua sariak baditu finalistak

### ERRDAKZIOA

Aingeru Epaltza eta Irati Jimenez dira Beterriko Liburua saria irabazteko bidean azken txanpara iritsi diren idazleak. Epaltza *Izan bainintzen Nafarroako errege* liburuarekin iritsi da finalera eta Jimenez, berriz, *Nora ez dakizun hori* lana-rekin. Saria 111 Akademiako kide-

ek aukeratuko dute hilaren 22a baino lehen. Martxoan amaieran egindako bigarren bozketak ez zuten saridunik utzi, ez baitzen jasotako botoen %40 a lortu zuen obrarik egon, eta horrenbestez, txanda hartan boto gehien jasozuten bilanak dira finalera iritsi direnak.

# Orcoyen saritu dute Logroñoko Nazioarteko Kantu Txapelketan

### ERRDAKZIOA

Helena Orcoyen ibartarra saritu berri dute Logroñon (Errioxa) izandako XXVIII. Logroñoko Nazioarteko Kantu Txapelketan. 12 finalistetako bat izatearekin batera, bi sari garrantzitsu eskuratu zituen; lehiaketaren sailkapen orokorrean bigarren egin zuen eta honetaz gain, Etorkizuneko Ahoetsa izeneko saria ere eskuratu zuen. Azken saria berezia da eta lirikaren munduan etorkizun oparoena duen ahoetsari ematen dio epaimahiak.

Ibartarra oso gustura dago jasotakoarekin, izan ere, sariak kantuarren munduan izaten ari den oihartzunaren isla dira. Era berean, hilaren 25ean eta maiatzaren 9an, TVEn, pasa den martxoaren 5ean Madrileko Monumental antzokian RTVEren Orkestra Sinfonikoarekin eskaini zuen kontzertu eskainiko dute.

## Zurea da hitza



### Mendikutera iristeko zailtasunak

Tolosaldean mendiz ezagutzen eta gozatzeko aurkitu ditugun haien bat plakek ez dute batera laguntzen. Argazkian ikusten duzuen buruzko ate hori Mendikutera igotzeko bideko azken zatian jarrita

dago. Eta zer? Ez dugu uste hortik pasatzeko bidea ondo ezagutzen ez baduzu, ate hori zeharkatuko duzunik. Nik behintzat, ez. Tolosako ala Albizturko Udalarena den horren arduraz ez dakit, baina behintzat nik albiste-kexa hau zabaldu nahi dut. **Izaskun Ezeiza.**



Mendikutera igotzeko azken zatian ateratako argazkia. HITZA

# Txapin Festa antolatzeko bilera, gaur

### ERRDAKZIOA

Txapinak jantzi eta festara joateko proposamena egiten dute berriro ere Tolosako gazteek. Orain bi urte antolatu zuten lehendabiziko aldir Txapin Festa, eta «bi jai egunek izan zuten arrakasta ikusita», berriro antolatzera erabaki dute. Aurtengoan, hilaren 15ean izango da eta jai egunean garai batean Oriain ibaian egiten zen baltsa jaitziera berreskuratu nahi dute.

Guztia antolatzeko bilera egungo dute gaur bertan 19:00etan Tolosako Kultur Etxean eta herrirako gazte guztiei egiten diete dei azaldu eta ekarpenak egin ditzaten.

**tolosaldeko.hitza.iragarkilaburrak.com**

Artxarkean sartu aldi berean iragarki gehiago irakurriko dituzu. **RACARNAK JARTZERO** www.tolosaldeko.hitza.iragarkilaburrak.com / 943 43 50 50 telefono zenbakia

### Higiezinak

**ETXERANTZAN**  
SALBU

**Tolosa.** (Voiti - Gorosti) Ezaugarri bereziak dituen bizitza salgai (75m<sup>2</sup>). Privetizazio bidez osatutako salmanta. Sukalde eta Zikloaren ekipatuak, egon-gela handia eta 2 logei. Argitsu. Komuna izan ezik, beste gutxiak kanpora begira. 2 terraza eder eta baita terraza ere. Premiazko salmanta. 658-72 92 88.

### Lan-hagotzak

**LAN ESKARIK**  
PERTSONAK ZAHAR

**Lizartza.** Adineko pertsonak zaintzeko emakume eskualdean kokatutako da. gidatzaile batera da. Harremanetan dugu telefonoz zerbaki honetara: 699-87 26 95.

Maila heraldea honetara: maria2@yahoo.es.

### KANPOKOAK GUREAN

### Higiezinak

**CARRUTASTENAK**  
SALBU

**Donostia.** Donostian, Antiguon-Erratburuz, garajetisa salgai. Kotxe sartoketa batera modu oso erabilgarria. 24.000€ aur. Telefono zenbakia: 608-019693.

### Lan-hagotzak

**LAN ESKARIK**  
SARBIDEAN

**Urrutzu.** Abere-zerbitzuekin eta eskualdeko egiten edo pertsona helduekin zaintza lan inguruko. Esparentzia handia eta eraberritzea onak ditu. 638-75 51 25 / Celina.

**Uzabil.** Zure etxerako alaiago eta poltiago egiteko tarte tokal bat nahi baduzu, aukera hobena gauri! Dize erorkita eta erorkita zibernetikaren bidez. Mesika larria jarraitzen dugu. Zi-puzioa inguruen inguruetan. Harremanetan: etxe-hots@hotmail.com.

### GAINBARRAK

**SANESKRINTZE**  
OSTALARITZA

**Goierri** (Gazteluz). Zerbaki eskualdeko behar da Goierriko jaitziera bati-

an lan egiteko. Telefono zenbakia: 943-80 62 06 edo 652-75 55 71.

**Diartzen.** Itzulita higitzea zerbitzuen enpresa itzultzaile baten bilabail. Kontuan hartuko da itzulpegiak itzultzaileekin.

**ARAMBURU** Etxen adinarekin zuzen Higiezinaren kudeaketa  
943-65 17 13 / 677-46 09 16

### ALOKAZTERO

• Etxeak Ametzan, San Francisco eta Lurren, Tolosa.  
• Garajeak San Francisco, Araba eroti, Lurren eta Basilio Zabaltzen, onetako aukerarik.

### SALGAI

- Etxehiritza. Lanarrenda. Ispagailuak, enkastratu berri. San Francisco eta arabia onak.
- Etxehiritza. Enberretzeko Iratzen, 20 milioi gis.
- Etxehiritza. Iratzen. Sartzeko moduan. Itakurtu onak.
- Garaje itxiki eta irekiak Ametzan Tolosa, Ibaña eta Iratzen.
- Sakela. Garate plaza, Tolosa.

**A M E Z K I T A**  
268.485 €  
Etxeratu berria, bilakuntza larri handia.

**inmoetesagosti**  
SAIWIYEA - BIZIADAI ALOKAZTE AGERDUREA  
Argoiz 13 - 20130 Villabona  
Tel: 943 03 88 38 / Fax: 943 03 88 37  
www.inmoetesagosti.com

**SEAT** Auto  
**auto/ ARTIBAI / l.**  
SEAT - ALFA - VOLKSWAGEN  
**BMW 328 CJ FULL EQUIP** 11.000 euro  
**SEAT LEON 2000 TDI 148 xabli** 2007ko modelo. Zilar kolorekoa / 12.500 euro  
**SEAT LEON TDI 192 ZALDI BERRIA** 16.500 euro / Finantziatzea 90 interes  
**SEAT LEON 2000 TDI 148 xabli** 2007ko modelo. Zilar kolorekoa / 12.500 euro  
**ALFA ROMEO CARABETIK GABEKO AUTOA** 1.500 euro  
Tolosa auzoa ete • Ataria: Berritzi  
Tel.: 94-636 77 14 / Fax: 94-616 77 69

**Salbide**  
**SALBIDE**  
Higiezinaren zerbitzuak  
Bekoa kalea, 4 • 20800 Zarautz  
Tel.: 943-01 07 00 • Mug.: 665-71 85 96  
www.inmoesalbide.com

**Aitzarnazabal.** 3 logelako etxebizitza, 10 metro lauzerako trastelekuak. Oro prezio onen. 33.000.000 pezetan.  
**Zarautz.** Aizola Partu Loge bati eta handi. Auzo eta hiri ederrik. Trasteleku eta ingurak. 47.500.000 pezetan.  
**Zarautz.** Erdiguzan. 3 logelako etxebizitza. Laguntza solaria ingururik gabe. 10 metro lauzerako terrazarekin. Oro prezio onen. 43.000.000 pezetan.  
**Zarautz.** Vistua Alente. 2 loge eta terraza handi. Eguzkituta. 49.500.000 pezetan.  
**Zarautz.** Erdiguzan. 2 logelako etxebizitza. Ingurak eta trasteleku txiki baxekin. Oro prezio onen. 41.000.000 pezetan.  
**Zestoa.** Arra behe. 3 logelako etxebizitza. 38.000.000 pezetan.  
**Getaria.** Herriko kalea. 3 loge eta 2 lorategiako etxebizitza. Trastelekuak. Igitzer onen. 44.500.000 pezetan.

**Ikolan lanaldi**  
ALDIBATEKO LANA  
Sergara, 7 (zentru komertziala) • BEASAIN  
**943-16 20 48**  
Ikolan lan eskaintzak:  
www.ikolansaldi.com

**Etxebila** Higiezinak  
9 4 3 - 4 4 6 1 6 6  
**ALCAHARRAN**  
**AMARA** 3 logeak, egongela, sukaldea, 3 lorategi, 100M<sup>2</sup> terraza, 40.400.000 pe.  
**OROSKO BARRIA** 3 logeak, egongela, sukaldea, terraza, bita-aterak. 500E  
**SARBIDEA** 3 logeak, egongela, sukaldea, lorategi, 100E  
**SALMENTAN**  
**ALDI ZAHARRA** 2 logeak, egongela, sukaldea, lorategi, 12.800.000 pe.  
**OROSKO** 3 logeak, egongela, sukaldea, lorategi. Barria. Barria. Barria. 36.500.000 pe.  
**AMARA** 3 logeak, egongela, sukaldea, sukaldea, lorategi. Barria. 40.400.000 pe.  
**AMARA** Alente. 2 logeak, sukaldea, egongela, lorategi. Terraza. 40.500.000 pe.  
**AMARA** 3 logeak, egongela, sukaldea, 2 lorategi. Barria. 44.800.000 pe.  
**ANTIGUA** 3 logeak, egongela, sukaldea, lorategi, ingurak. Terraza. 47.800.000 pe.  
**BRODALIA** 3 logeak, egongela, sukaldea, lorategi. 20m<sup>2</sup> tera terraza. Txeke. Barria. 57.800.000 pe.  
**BAYLEARRA** 2 logeak, egongela, sukaldea, sukaldea, lorategi. 36.800.000 pe.  
**BARLUTENE** Logeak, egongela, sukaldea, lorategi. Barria. 22.500.000 pe.  
**BERBETA** 3 logeak, egongela, sukaldea, lorategi, ingurak. 39.400.000 pe.  
**BURGOS** Apartamentu-pala. Kanpora begira. Trasteleku. 38.800.000 pe.  
**ALFA** 3 logeak, egongela, sukaldea, lorategi. Kanpora/begira. Barria. 26.900.000 pe.  
**INAKURPE** 2 logeak, egongela, sukaldea, lorategi. Barria. ingurak. 34.400.000 pe.  
**LEITZARRAZA** 2 logeak, egongela, sukaldea, lorategi. Kanpora begira. 38.000.000 pe.  
**LEZO** 2 logeak, egongela, sukaldea, lorategi. Barria. 35.900.000 pe.  
**ERRETXELA** Palla. 3 logeak, egongela, sukaldea, lorategi, ingurak. 36.800.000 pe.  
**PALAU DONIBAS** 2 logeak, egongela, sukaldea, lorategi. Barria. 26.900.000 pe.  
**ORLU** 3 logeak eta bita aterak. 2 Garap. Terraza. 48.000.000 pe.  
**www.etxebila.net**  
Fuleta IV etxeak • DONOSTIA



16°  
8°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	17°
HOTZENA	9°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoetalea:** 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Antzerkia

■ **Tolosa.** Txaloren **Arrastoa** Leidorren 20:30ean, Ramon Agirre eta Asier Hormazarekin.

### Bertsolaritza

■ **Zizurkil.** Pello Mari Otañoren mendeurrenean Amuriza eta Peñagarikanorekin bertso ekitaldi txikia Atxulondo kultur etxean 20:00etan. Sarrera: 3 euro.

### Jardunaldia

■ **Tolosa.** Naturaldiaren hasiera 18:00etan; 19:00etan erakusketa zabalduko dute Zerkausian eta 20:00etan Kultur Etxean Daniel Paulyren irekiera hitzaldia.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Azpiroz L. Amarotz auzoa, 9. 943 67 51 18.  
■ **Betelu.** Carrillo A. Kale Nagusia, 5. 112.  
■ **Irurtzun.** Mutiloa A. M. San Martin, 5. 112.

### » TELEBISTA

**28 Kanala**  
**08:30.** Wazemank. **09:00.** Klipak. **09:30.** Tolosaldean Gaur. **10:00.** Gipuzkoa kultura. **10:30.** EH Lau Haizetara. **11:00.** Erloklip. **11:30.** Tolosaldean Gaur. **12:00.** Eskuokin. **12:30.** Ur eta lur. **13:00.** Alex eta Alexis. **13:30.** Tolosaldean Gaur. **14:00.** Gipuzkoa kultura. **14:30.** EH Lau Haizetara. **15:00.** Erloklip. **15:30.** Tolosaldean Gaur. **16:00.** Eskuokin. **16:30.** Ur eta lur. **17:00.** Alex eta Alexis. **17:30.** Tolosaldean Gaur. **18:00.** 28 Klip. **18:30.** Ilunpean. **19:00.** Ikusmira. **19:30.** Tolosaldean Gaur. **20:00.** Kiroleroak.  
(\*16:30etik 20:00etarako blokea lau orduko errepikatuko dute)

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Aitor eta Olga Marokon izan dira azken opor egunetan eta bi argazki hauek bidali dituzte XI. HITZA Argazki Lehiaketan parte hartzeko. Zu ere animatu parte hartzera!

# Marokon barrena



### LARRAUL

Aste Santuan Olga eta Aitor Marokon ibili dira eta bi argazki hauek bidali dizkigute. Hauxe dio Aitorrek lehen argazkiaren harira: «Argazki hau ikusitako gauza askoren adierazgarri delakoan gaude: asto garraio txiro modura eta edonolako gurdiak, lurrak emandako barazki freskoak, aurpegia estalirik darabilen emakumea, palmondoak, kale ondo zikinak, Marrakecheko omen den etxeetako 'salmoi' kolorea, edozein modura ordenatzen diren kale eta plazak, eta abar. Ezagutzeko modukoa, benetan!». Olgak berriz, bigarren argazkia bidali du eta hauxe dio: «Ia denok ezagutzen ditugu Fes eta Marrakech bezalako hiri inperialak, baina itsaso asko duen partetik, badira Essaouira moduko itsas paraje oso politak». AITORETA OLGA

## A Agurrak



**Urte askoan!**

**Unai Urkizar (Gaur 3 urte).**  
Zorionak pottolo!! Eta muxu goxoak zuretzat.

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak jaioberriak - jaunartzeak...

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera, Mila esker.**

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

**BASOKO**  
ALTZARIAK

**-50% -40% -35% -20%**

**LIKIDAZIOA**

ERAKUSKETA ALDARAKOAGAIK

larrea auzoa s/n poligono 34, 2  
20150 **billabona** gipuzkoa  
tfn.: 943 692 965

www.muebles-basoko.com mueblesbasoko@yahoo.es